



---

**FAMILIA UNITATEENTZAKO DIRULAGUNTZA DEIALDIA, 0-2 URTE  
BITARTEKO ADINGABEAK KATTUKA HAUR ESKOLAN ESKOLATZEKO  
(2023/2024. IKASTURTEA)**

---

**1. Xedea eta helburua.**

Deialdi honen xedea da Etxarri Aranatzen errolatuta egonik Kattuka Haur Eskolan 0-3 urte bitarteko matrikula egin duten 0 eta 2 urte bitarteko seme-alabak dituzten familiei dirulaguntzak ematea da, haur eskolak sortutako gastuaren zati bat finantzatzeko.

Laguntza ekonomiko honen helburu nagusia da herritik kanpoko erreferentziazko ikastetxe publiko batean familia-kontziliazioa eta derrigorrezkoa ez den hezkuntza sustatzea eta laguntzea da.

Diru-laguntza hau bateragarria izango da helburu bererako edozein motatako diru-laguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak ematearekin, edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutatik, nazionalak, Europar Batasunekoak edo nazioartekoak.

Deialdi honetan jasotako laguntzak emateko, printzipio hauek beteko dira: publikitatea, lehiakortasuna, gardentasuna, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza, helburuak eraginkortasunez betetzea eta baliabide publikoak eraginkortasunez esleitzea eta erabiltzea.

Gainera, dirulaguntzak emateko, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta Dirulaguntzei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra (ekainaren 21eko 886/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua) bete behar dira, eta aplikatu beharreko gainerako araudi osagarria.

**2. Finantzazioa.**

Deialdi honetan araututako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak hauek Udaleko aurrekontuan horretarako egokitutako 3.000 euroko kontu-sailaren kargura finantzatuko dira: 3221 48000 "Kattukako familiei dirulaguntza".

---

Laguntzen zenbateko osoak horretarako gordetako diru-esleipena gainditzen badu,





aurrekontuan aurreikusitako gehieneko diru-esleipena garaiz eta behar bezala aurkezten diren eta deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskaeren artean hainbanatuko da.

### 3. Laguntza lerroak eta zenbatekoa.

Diru-laguntzaren onuradunek 300,00 eurorainoko zuzeneko laguntza jasoko dute 2023-2024 ikasturtean adingabe bat Kattuka Haur Eskolan matrikulatzeagatik.

Matrikula partziala egin duten adingabeek (hau da, ikasturtearen zati baterako matrikula egin dutenek) laguntza proportzionala jasoko dute, Eskolara joan diren denboraren arabera.

Kasu horretan, hainbanaketa hilabete osoka egingo da.

### 4. Eskatzaileek bete beharreko baldintzak.

Deialdi honetan araututako laguntza eskatzen dutenek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Dirulaguntzaren eskatzailea eta bere ardurapeko adingabea Etxarri Aranazko erroldatuta egotea, eta udalerrian gutxienez urtean 9 hilabetez bizi izatea, eskaera egiten den egunean gutxienez urtebeteko antzinatasunarekin (ofizioz egiaztatuko da).

- Adingabeak 0 eta 2 urte bitartean izatea eta herriko ikastetxeetako 2 urteko klasean onartua ez izatea (erantzukizunpeko adierazpena, II. eranskinaren arabera).

- Adingabea matrikulatuta egotea eta Kattuka Haur Eskolara modu jarraituan joatea 2019/2020 ikasturtean, eskatutako jornada edozein dela ere.

- Diru-laguntza eskatzen den egunean, Udalarekiko, Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea (erantzukizunpeko adierazpena, II. eranskinaren arabera).

- Diru-laguntzen onuradun izateko debekurik ez izatea, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua (erantzukizunpeko adierazpena, II. eranskinaren arabera).

Familia-unitate bakoitzak dirulaguntza bakarra jasoko du bere ardurapeko adingabea eskolatzeagatik. Horrela izanda, bi gurasoek ezin izango dute laguntza eskatu beren kargura dagoen adingabe berdina eskolatzeagatik.





## 5. Eskerak, dokumentazioa, eta aurkezteko epea.

5.1. Dirulaguntza eskerak Etxarri Aranazko Udalaren Erregistro Orokorrean (Nagusia, 10. 31820. Etxarri Aranatz) aurkeztu beharko dituzte euren proposamenak, jendearentzako ordutegian (10:00-14:00) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusten diren bideetatik edozein erabilia.

5.2. Dirulaguntzaren eskabidea I. eranskin gisa argitaratutako ereduaren arabera izango da, eta honako agiri hauek erantsi beharko zaizkio:

- Familia-liburuaren fotokopia.
- Kattuka Haur Eskolan matrikula egin izanaren frogagiria.
- SEPA dokumentua, eskatzaileak sinatuta.
- Deialdiaren 3. atalean ezarritako baldintzak betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, II Eranskinean zehaztutako ereduarekin..
- Eskatzaileak Etxarri Aranazko Udalari baimena ematea beharrezko erregistro eta datu-baseetan sartzeko, deialdian ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko eta, zehazki, Kattuka Haur Eskolak egokitzen jotzen duen dokumentazioa aurkezteko, III. Eranskinean zehaztutako ereduarekin.

5.3.- Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, eta deialdiaren onarpenaren erabakia Udalaren iragarki-oholean eta webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

## 6. Eskerak aztertzea eta akatsak zuzentzeko epea.

6.1. Udal-zerbitzu teknikoak aztertzeko arduradunak izango dira, eta horretarako irizpen-ebazpen proposamen bat egingo dute.

Ebazpena emateko eta jakinarazteko epea hilabetekoa izango da, espedientea garatzeko eskatutako dokumentazio guztia entregatzen den unetik zenbatzen hasita. Epe hori igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, eskaera ezetsizat jo ahal izango da administrazio-isiltasunez.

6.2.- Udaleko zerbitzu teknikoek dokumentazioan akatsak daudela ondorioztatzen

---





badute, edo osatu gabe dagoela pentsatzen badute, interesdunei 5 egun balioduneko epea emango diete akatsak zuzendu edota dokumentazio osagarria aurkezteko.

Adierazitako epean zuzenketa hori egiten ez bada, interesdunak dirulaguntzari uko egin diola ulertuko da, horretarako ebazpena eman ondoren.

## **7. Dirulaguntza ematea eta ordaintzea.**

7.1.- Alkatetzaren ardura izango da diru-laguntza emateko edo ukatzeko ebazpena ematea, Udaleko zerbitzu teknikoek egindako proposamenaren arabera.

7.2.- Diru-laguntza emateko ebazpena eman ondoren, interesdunek 15 egun balioduneko epea izango dute dokumentu hauek aurkezteko:

- Kattuka Haur Eskolaren ziurtagiria, adingabeak 2023/2024 ikasturtean ikastetxera izandako etengabeko bertaratzeari buruzkoa.

- Dagozkion ogasunek (Nafarroako Foru Ogasunak, Estatuko Ogasunak edota Foru Ogasunak) eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emandako ziurtagiri positiboak, onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen dutenak, hurrenez hurren. Ziurtagiri horiek diru-laguntza eman eta gehienez ere sei hilabete lehenagokoak izango dira.

Interesdunak ez badu dokumentazio hori ezarritako epean aurkezten, dirulaguntzari uko egin diola ulertuko da, horretarako ebazpena eman ondoren.

7.3.- Laguntza ekonomikoa aurreko atalean adierazitako dokumentazioa egiaztatu ondoren ordainduko da.

Ordainketa banku-transferentzia bidez egingo da, onuradunak adierazitako kontu korrontean.

7.4.- Dirulaguntzak ordaindu ondoren, organo kudeatzaileak behar diren egiaztapen guztiak egingo ditu, onuradunak hartutako konpromisoak betetzen ari direla konprobatzeko.

## **8. Araudia ez betetzea eta emandako dirulaguntza bueltatzea.**





Arau-hausteei, zigorrei eta dirulaguntza itzultzeari dagokienez, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren IV. tituluan eta Lege horren Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretuaren IV. tituluan ezarritakoa aplikatuko da.

## 9. Datuen babesa.

2016/679. Erregelamenduaren (RGPD) 13. artikuluan zehaztutakoa betez, ondoko informazioa adierazten da:

- Parte hartzen duten pertsonen emandako datuak tratatzeko arduraduna Etxarri Aranazko Udala da.

- Tratamenduaren helburua Kattuka zentroan matrikulatuta dauden eta Etxarri Aranazko erroldatuta dauden 0 eta 2 urte bitarteko haurren familiei diru-laguntzak emateko

- Oinarri juridikoa 6.1.e). artikulukoa da: tratamendua beharrezkoa da interes publikoarengatik edo tratamenduaren arduradunak egotzita dituen botere publikoak erabiltzeagatik.

- Jasotako datuak helburua bete arte gordeko dira, edo datuen tratamenduarengatik eta deialdiarengatik sortu daitezkeen erantzunkizunei erantzun ahal izan arte. Dokumentazioaren eta artxiboen araudian ezarritakoa aplikatuko da (Nafarroako Toki Entitateen dokumentuak eliminatu eta ebaluatzeko instrukzioak).

- Datuak legeak ezartzen dituen kasuetan jakinaraziko dira (RDL 5/2015), baita 5/2018. Foru Legearen 19.2.f). artikulua aurreikusten dituen kasuetan ere.

- Titularrak udal bulegoetan edota [udala@etxarriaranatz.eus](mailto:udala@etxarriaranatz.eus) helbide elektronikoan haien sarbide, zuzenketa, ezabapen, mugaketa eta portabilitate eskubideak erabili ahal izango dituzte

## 10.-Helegiteak

Deialdiaren, haren oinarrien eta hura aplikatzeko egintzen aurka, hautara, honako errekurso hauetako bat aurkez daiteke:

- Berraztertze errekurtsua, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazi eta biharamunetik hasita.

- Gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazten denetik aitzina.





## Etxarri Aranazko Udala

- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabetez, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Etxarri Aranatz, sinaduraren datan  
En Etxarri Aranatz, a la fecha de la firma.

María Saez de Albeniz Bregaña.  
ALKATEA/La Alcaldesa  
*Elektronikoki sinatutako dokumentua/documento firmado electrónicamente.*





#### I. ERANSKINA: INSTANTZIA EREDUA

..... jaun/Andrea, adinez nagusia,  
..... NAN zenbakiduna, .....n jaioa (data),  
..... kalea ..... zenbakia .....  
eskailera ..... pisua helbidea duelarik, ..... herrian  
(posta kodea .....).

Telefonoa:

Posta elektronikoa:

ETXARRI ARANAZKO UDALAREN aurrean agertzen da eta ADIERAZTEN DU:

**0-2 urte bitarteko adingabeak Kattuka Haur Eskolan eskolatzeko familia-unitateentzako diru-laguntza eskaera aurkeztu duela (2023/2024 ikasturtea), bere ardurapeko ..... adingabearentzat.**

Deialdiaren oinarriak ezagutzen dituela eta onartzen dituela adierazten du, eta ondoan zehazten diren dokumentuak aurkezten ditu:

- Familia-liburuaren fotokopia.
- Kattuka Haur Eskolan matrikula egin izanaren frogagiria
- SEPA dokumentua sinatuta
- Erantzukizunpeko adierazpena, II. eranskinaren arabera.
- Udalari baimena ematea eskatzailearen datu pertsonalak eskuratzeko, III. eranskinaren arabera.





# Etxarri Aranazko Udala

Eta eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela adierazi du, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunari dagokionez.

Horregatik guztiagatik, honako hau ESKATZEN DU:

Eskabide hau garaiz eta behar bezala aurkeztutzat emanda, onar dadila Kattuka Haur Eskolan 0-2 urte bitarteko adingabeak eskolatzeko familia-unitateei diru-laguntzak emateko deialdiaren sinatzailea (2019/2020 ikasturtea).

(Data eta eskatzailearen sinadura)

## ETXARRI ARANAZKO ALKATEA

\*DATUEN BABESA **Tratamenduaren arduraduna:** Etxarri Aranazko Udala. **Xedea:** Kattuka Haur Eskolan adingabeak eskolatzeko diru-laguntzak ematea. **Eskubideak:** Datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzeko eskubidea, bai eta beste eskubide batzuk ere, deialdiaren 9. oinarrian jasotako informazio gehigarrian adierazten den bezala.

## II. ERANSKINA. AITORPEN ARDURATSUA

..... jaun/Andrea, adinez nagusia,  
..... NAN zenbakiduna, .....n jaioa (data),  
..... kalea ..... zenbakia .....  
eskailera ..... pisua helbidea duelarik, ..... herrian  
(posta kodea .....).

Telefonoa:

Posta elektronikoa:

ETXARRI ARANAZKO UDALAREN aurrean agertzen da eta NIRE ARDURAPEAN ADIERAZTEN DU:

Diru-laguntza eskatzen duen adingabea ez dela onartua izan Etxarri Aranatzeko ikastetxeetan, bi urteko klasean.

Behean sinatzen duenak egunean dituela zerga-betebeharrak, Udalarekiko, Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko, diru-laguntza eskatzen duen egunean.

Behean sinatzen duenak ez duela diru-laguntzen onuradun izateko debekurik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan zehaztutakoaren arabera.

ETA ONDOKO AITORPEN ARDURATSUA SIANTZEN DU, BEHAR DEN ONDORIOAK SOR DITZAN.







(Data eta eskatzailearen sinadura)

### ETXARRI ARANAZKO ALKATEA

\*DATUEN BABESA **Tratamenduaren arduraduna:** Etxarri Aranazko Udala. **Xedea:** Kattuka Haur Eskolan adingabeak eskolatzeko diru-laguntzak ematea.. **Eskubideak:** Datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzeko eskubidea, bai eta beste eskubide batzuk ere, deialdiaren 9. oinarrian jasotako informazio gehigarrian adierazten den bezala.

### III. ERANSKINA. DATU PERTSONALAK KONTSULTATZEKO BAIMENA

..... jaun/Andrea, adinez nagusia,  
..... NAN zenbakiduna, .....n jaioa (data),  
..... kalea ..... zenbakia .....  
eskailera ..... pisua helbidea duelarik, ..... herrian  
(posta kodea .....).

Telefonoa:

Posta elektronikoa:

ETXARRI ARANAZKO UDALAREN aurrean agertzen da eta ADIERAZTEN DU:

Etxarri Aranazko Udalari deialdian ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko beharrezkoak diren erregistro eta datu-baseetan sartzeko baimena ematen diola, eta, zehazki, Kattuka Haur Eskolak egoki iritzitako dokumentazioa jasotzeko, datuak babesteko araudian ezarritako ondorioetarako.

ETA ONDOKO AITORPENA SINATZEN DU, BEHAR DEN ONDORIOAK SOR DITZAN.

(Data eta eskatzailearen sinadura)





Etxarri Aranazko  
Udala

#### ETXARRI ARANAZKO ALKATEA

\*DATUEN BABESA **Tratamenduaren arduraduna:** Etxarri Aranazko Udala. **Xedea:** Kattuka Haur Eskolan adingabeak eskolatzeko diru-laguntzak ematea.. **Eskubideak:** Datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzeko eskubidea, bai eta beste eskubide batzuk ere, deialdiaren 9. oinarrian jasotako informazio gehigarrian adierazten den bezala.

